



Leioaztar agurgarriok:

Aurreko urteetan legez, zuengana jo dugu uztailean egingo den UDA kanpainari buruzko informazioa emateko. Dakizuenez, egun horietan jarduera desberdinak egiten dira, parte-hartzaileen adinaren arabera; hala ere, guzti-guztiek izaten dute ezaugarri komuna: jolas, heziketa eta kirol arlokoak izaten dira. Sakonetako kirol instalazioetan egingo dira jarduera horietako batzuk, baita herriko eta ondoko herrietako beste leku batzuetan ere.

Iaz bezala, bi hamabostalditan (hamaika egun txandako) zatituko UDA 2015 kanpaina. Horrela, ume gehiagok gozatu ahal izango du ekimen honetaz.

## **BALDINTZAK:**

- 2002 eta 2008 (biak barne) artean jaiotako eta Leioan 2015ko apirilaren 1a baino lehen erroldatutako umeak.
- Hautazko hizkuntza eredu: euskara edo gaztelania
- Txandak (400na plaza):
  1. Uztailaren 1etik 15era
  2. Uztailaren 16tik 30era (
- Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara. Astelehenetik ostiralera.
- Prezioa: Leioako UKIko abonatuak: 41.10 €  
Leioako UKIko abonatuak ez direnak: 66.75 €  
Abonatuak izango dira 2015eko maiatzaren 2a baino lehen Leioako UKIan izena eman dutenak, betiere 2015 amaitu arte abonatu izaten jarraitzen baldin badute.
- 2015ko UDA kanpainarako aurretiko izen ematea betetzeak funtzionamendu arauak onartzea dakar, baita jardueraren baldintza eta diseinuarekin ados egotea ere.
- Kanpainaren ordainketa helbideratu behar da.

## **PLAZAK ESLEITZEA**

- Leioako UKIko abonatua izateak, Leioako erroldako antzintasunak... EZ dute lehentasunik suposatuko kanpainarako plazak esleitzerakoan.
- Plazak zozketa publiko bidez esleituko dira. Zozketa Ekainak 3 izango da, 11:00etan, Sakoneta kiroldegian. Zozketaren arauak eta erabiliko den sistema Sakoneta kiroldegiko iragarki taulan kontsulta daitezke.
- Itxaron zerrendak egoteak ez du esan nahi erabiliko direnik bajarik balego. Kanpainaren garatze onenerako eta baliabideen arrazoizko antolakuntzari erreparatuta, zozketa ostean, Leioako UKIk erabakiko du zerrendak erabiltzearen egokitasuna.
- Zozketa eta gero, plaza lortu duten ume guztiei jakinarazpena bidaliko zaie posta elektronikoz. Plaza onartzeko, posta elektronikoko hau erantzun beharra dago zehaztutako epean. Gainera, onarpenarekin batera banku-kontuaren IBAN zenbakia eman behar da, kanpaina ordaintzeko

## **ESKABIDEAK AURKEZTEA**

Aurretiko izen ematea	Maiatzak 18- 22	Sakoneta Kiroldegia	9:00 – 21:00
Inskribatutakoen zerrenda	Maiatzak 26- 27	Sakoneta Kiroldegia	9:00 – 21:00
Erreklamazioak	Maiatzak 26- 29	Sakoneta Kiroldegia	9:00 – 21:00
Zozketa	Ekainak 3	Sakoneta Kiroldegia	11:00
Plaza onartu	Ekainak 8-12	Sakoneta Kiroldegia	9:00 – 21:00

- Beharrezko dokumentazioa:
  1. Aurretiko izen-emate orria, behar den moduan beteta
  2. Leioako UKIko abonatuak: bazkide txartela